

Ugandak du marka: % 98. Menpekotasun erabatekoa ekartzen du horrek. Menpekotasun horrek noski erro historikoak ditu, kolonialismoaren garaian sustraituak. Mechanismo berak lan egiten du. Atzerriko diruak ez du bertako zientzi- eta teknologi-sarea indartzen, iraunarazi baino ez du egiten. Aski da zientzialari- eta teknologo-elitea sortzeko, gero garai bateko metropoliak zurgatuko duena lehen esklaboekin edo eskulanarekin egiten zuen antzera. Datua: 1992an Afrikan 20 bat mila zientzialari eta ingeniari bakarrik ei zegoen, munduko guztien % 0,36. ♣



Ritxi Lizartza

Kontseilua

Bai Euskarari kanpaina egin zenetik hogeit hamar urte bete direnean eta, urteurren horren haritik, Bai Euskarari berria antolatu eta ospatu ondoren, bide bikaina utzi zion errebin-dikapen honek euskalgintzari hurrengo urte eta hurrengo mendeari begira: Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua. Gizartearen sektore guztiak biltzeko helburua duten hogeita hiru sektoretan banaturik, Kontseiluak gizartea bera euskalduntzeko helburua erakutsi du, edo, beste era batera esanda, euskararen normalizazioa iristeko helburua.

Orain arte euskararen alde egin izan diren kanpaina eta jaialdiek bi muga handi izan dituzte: batetik, jaialdi horietan biltzen ziren euskaldun sektoreetako jendea ospakizun horretaz aparte egunero euskaraz bizitzeaz kontzientizatzea, eta, bestetik, euskararekin harremanik ez duten sektoreetara nolabait iristea.

Badirudi Kontseiluaren kanpaina, orain arte euskararen normalizazioaren alde egin den gizarte mugimendurik zabalena, bide onetik doala. Lehenik eta behin, egunero jarduna euskaraz egin dezaketen gizarte eragileak

bildu ditu Kontseiluak: gaur egun euskaraz aritzen direnak, neurri batean edo bestean euskaraz aritzen direnak eta, azkenik, euskaraz egin ez baina euskaraz egiteko prest leudekeenak. Plan Estrategikoaren bidez euskara erabiltzearen beharraz jabeturik ez zegoen euskaldun asko —pertsonek zein erakundeak— kontzientziaztea lortzen ari da, eta elkarrekin gogoeta egitea. Horixe du lehenengo arrakasta. Eta berezkoa behar lukeen arren, zoriontzeko modukoa da Euskal Herri osora zabaldu nahi izana, Hego zein Ipar Euskal Herriari garrantzi bera eman izana.

Urteari plan estrategikoaren hirugarren faseak —azterketa eta hausnarketa faseen ondoren— eman dio amaiera: gizarte eragileek konpromisoa hartzeko proposamen zehatzak.

Eta eskaileraren maila honetan agertuko dira zailtasunik handienak. Izan ere, gizarte eragileek konpromiso horiek betetzea gertatuko da oztopo nagusia. Nola lortu euskara jardun nagusia ez duten eragileek intentzio onak erakusteaz gain, eguneroko jardunean euskara lehenesteko edo gutxienez euskararen erabilpen maila handitzeko konpromisoa?

Gaur egun industrian, publizitatean, komunikabideetan eta beste hamaika arlotan erdarek indar handia dute. Inbertsioen helburua ekonomikoa den heinean, sektoreetako portzentaje handi batek ez du euskararen beharrik Euskal Herrian aberastu ahal izateko. Horren arrazoia, oso sinplea da: euskaraz bizi ez den gizartearen portzentaje handi batek ez du inondik ere euskararen beharrik, euskarari bizkar emanda bizi da. Eta denok dakigu oso sektore indartsua dela, mass-mediaren jabe, industrian eta lan munduan nagusi, eta abar. Nola konbentzitzen ditugu, hitz ederrez gain, euskararen aldeko konpromisoak hartu eta betetzera? Nola lortu euskalduntzeko egutegi bat hartzea?

Euskaldunek euskaraz egitea berez izango da lehen helburua, baina denok dakigu ez dela nahikoa izango gure gizartean euskararen hizkuntz normalizazioa erdiesteko.

Beraz, bidea luzea da eta planaren fase hau erabakigarria gertatuko da Kontseiluaren izatea eta etorkizunean izango duen eginbeharra zehazteko.

Eta ezin ahaztuko dugu erakunde publikoen betebeharrak dela euskararen erabileraz sentsibilizatu, erabilpena bultzatu eta prozesu hau guztia Kontseiluarekin elkarlanean babestea.

Era berean, komeni da ez ahaztea EKB Kontseiluaren sorreraren eraginez desagertu egin zela eta, beraz, oso garrantzitsua da Euskararen Kultur Batzordeak betetzen zituen funtzioak Kontseiluak bere egitea: *Bat* aldizkaria, Hizgabe eta eremu urriko hizkuntzen bulegoa, nazioarteko harremanak, boletina, euskal kulturaren koordinazio lana, eta abar.

Kultura Sailaren lana eta kasu praktiko bat: antzerkigintza

Jaurlaritza eratu zenetik haize freskoa sumatzen hasi zen Kultura Sailean. Sentsazioak berriak ziren. Izan ere, kulturaren arlokako egungo egoeraren infomazioaren bila abiatu ziren kalera sail horretako kargudun eta teknikariak. Orain arte ez bezala —ez Arregiren garaian, ez Mari Karmen Garmendiaren lehen etapan—, Kultura Sailak hartu zuen inizatiba kulturagintzaren pulstua eta balantzea egiteko, eta egungo benetako eragileen lana ezagutzeko eta ari denari laguntza emateko. Bilerak deitu, informazioa eskuratu eta horren arabera euren estrategia diseinatu eta babes ekonomikoa ematea izan da Kulturako langintza. Horrela arituta, garbi dago orain arte kulturagintzako topiko eta bidegabekeria asko bazterturik geratu direla. Eta beldurrak eta alde aurretiko bazterkeriak ere bai.

Eta egiten diren lanak lagundu egiten dira. Beraz, urte hau askok uste baino garrantzitsuagoa gertatu da alde horretatik, izan ere, erakundearen asmoa *herriaren esku jartzea* izan da neurri batean, aurreiritziak baztertu eta sektore guztiei ateak zabaltzea. Eta horrela lau urterako lan ildoan diseinua egitea. Kultura Sailaren borondate onaz gain, sektore guztietara hurbiltzeko ere oso egokia izan da Lakuan gobernu abertzalea sortu izana eta EHren babesa jaso izana. Onuragarria litzateke bide horretan aurrera egitea eta sektore guztietan eragile direnei baliabideak ematea.

Gaur egun komunikabide, antzerki, dantza, arte eder eta beste hainbat arlotako gabeziei ahal den neurriko erantzuna ematen ari zaiela esan daiteke.

Beste kontu bat da laguntzak emateko orduan erabili izan diren irizpideak. Egindako lanari eta kultura laguntzeko asmo garbiari ez zaio kritika handirik egin aurten. Baina Kultura Sailak laguntza horiek banatzeko irizpideek merezi dute hausnarketarik.

Arloka emandako laguntzak aztertuta, badirudi helburuak oso garbi dituela Kultura Sailak, goitik beherako banaketa egitea alegia. Eta kultur esparru bakoitzeko ordezkari nagusiei laguntzarik handienak ematea, mailan beherago dauden beste ordezkariak askoz ere gutxiago emanik.

Adibide moduan antzerkigintza hartzen badugu, arlo horretan argi eta garbi geratzen da zein den Kultura Sailaren laguntza-banaketarako eredia. Talde profesional handiei bultzada eman eta talde txikien finantziazioa (talde berean punta-puntako antzerki talde profesionalak ez direnak, amateurrak eta antzerki eskolak —besteak beste—) tokian tokiko erakundeen esku utzi. Jarrera honekin bermatu egin nahi da gure talderik onenak Espainian zein beste atzerrietan homologagarriak izatea, Euskal Herrian (EAEn, hobe esan) egiten den antzerkigintza kanpokoaren pare lehiatzeko modukoa izan eta esportagarria gertatzea. Eta hori oso egokia litzateke, Euskal Herrian izan beharrean, hizkuntza bakarrean mintzatzen den eta antzerkigintza oso sendotua duen edozein autonomia erkidegotan. Baina helburua kanpoan homologatzea bada, gauza asko uzten dira bidean: antzerki taldeek euskarazko produkzioari lehentasuna eta benetako garrantzia ematea, Hezkuntza Sailarekin egindako hitzarmen baten bidez antzerkigintza unibertsitateko ikasketa bihurtzea, antzerki egileak sortzeko ikastaroak antolatzea, talde gutxi batzuentzat baino ez den Sarea beste taldeei zabaltzea edo antzeko kanpainak bultzatzea (aspaldi homologazioa lortu zuten Ipar Euskal Herriko taldeei, adibidez), euskarazko egungo Antzerki Jaialdi bakarra (Azpeitikoa) oso oihartzun apalekoa izatea, erdarazko jaialdiak eta azokak ugaltzen diren bitartean (Donostiakoa erabat erdaraz egitea hausnarketa sakona

egiteko moduko erabakia da, antzerki taldeek berek hartua), sortzen ari diren proiektu interesgarri askori atea ixtea, atzerriko testuak euskaratzeko plangintza egitea, aretoko ume-antzerkirik ez egitea, eta abar. Politika horrekin, kasu askotan dirulaguntzaren beharrik ez duten talde handiak gero eta handiagoak izango dira eta talde txikiak gero eta txikiagoak, eta talde berriek oso zail izango dute lehiatu ahal izatea. Egungo egoerari begira, badirudi beharrezkoa izan dela taldeak enpresa bihurtu eta antzerki-gintza merkatuko legeen arabera produkzioa bihurtzea, baina ez da oso egokia iturria hor ixtea.

Hala ere, ondorio denetan garrantzitsuena euskararen ingurukoa da. Izan ere, Kultura Sailaren jarrerak aitzakia ematen die talde handiei, euskaraz funtzionatu beharrean, kasu askotan euskara bera laguntza eskuratzeko aitzakia izan dadin eta produkzio osoa erdarazko orijinalerako pentsatua izan dadin. Eta helburua merkataritza produktu duina eta ahal dela arrakasta ziurtatua duena egitea da.

Beraz, Kultura Sailak Euskal Herrirako eta Euskal Herrian antzerkia egin nahi duten taldeei zabaldu beharko lizkieke atea, eta euskaraz pentsatu eta taxututako obra batek homologatzeko adinako maila badauka, orduan pentsatu beharko litzateke kanporatzea eta atzerrian arrakasta bilatzea. Eta ez erdarazkoaren morroi izatea.

Argi geratzen da arazoak bata besteari kateaturik etortzen direla. Eta talde berriak sortzea zaila denez gero eta euskarazko estreinaldiak urri baino urriagoak direnez gero, asmo onez beteta ugaltzen ari diren antzerki jaialdiek oso aukera murrizak dituzte. Adibide moduan, Donostiako Euskararen Udal Patronatuak antolatutakoa: lau emanaldi eskainiko dituzte, euskaraz emango diren lan gehienak bilduz, baina nori eskaini planteatzerakoan, oso zaila egiten zaie ikusle ereduaren arabera emanaldiak eskaintzea eta, beraz, behartuta daude euskaraz egiten den apurra edozein eratako ikusleei eskaintzera. Eta lan horiek denak agian ez dira egokiak ikasleei eskaintzeko, baina besterik ez dagoenez gero...

Beste arazo bat agintzeko ahalmen handia duten programadore gutxi batzuen nagusitasuna eta harrokeria da,

ez bakarrik taldeak kontratatu eta beren herrira eramateko orduan, inguruko herriek talde bat kontratatzeke euren irizpidea erabakigarria baita eta, modu berean, laguntzak emateko orduan ere presio handia eragin baitezakete.

Izan ere, egungo euskarazko antzerkigintzak aje handiak dauzka. Begiratu besterik ez dago aurten izan diren estreinaldiei. Oso lan gutxi eskaini dira euskaraz. Alde onik bada: European arrakastatsu gertatzen ari diren antzezlanak ezagutzeko aukera ematen digute talde profesionaletan. Askok uste baino aberasgarriagoa da antzerkigintza modernoko obra horiek (Ingalaterrakoak, Frantziakoak, Kataluniakoak, Italiakoak,...) guri hurbildu eta antzerki munduak zein joera hartzen duen ezagutzeko. Baina ez lirateke bakarrik bilatu behar ikusleen aldetik arrakasta lortzen duten lanak.

Bestalde, oso ondorio larria eragiten du inportazio lan horrek, gaur egun ez baita euskarazko antzezlanik sortzen. Antzeztua izatea oso zaila delako, prestatutako jenderik ez dagoelako, eta idazten den apurra (sarietara aurkezten dena, Euskaltzaindiaren aurtengo saria jaso duen *Jon Mirande Parisen hatzana* kasu) antzerki taldeek eta egungo antzerkigintzak jarraitzen dituzten bideetatik oso urrun dagoelako edota antzeztua izateko helburuarekin idazten ez delako.

Beraz, kanpora begira euskal taldeak bikain ari diren bitartean —eta ez da batere txarra hala izatea—, denon artean hausnarketa egin eta planteatu beharko genuke zein neurritan egiten dion mesede Kultura Sailaren egungo politikak euskarazko antzerkigintzari. ¶